

HEZKUNTZA INFORMALAREN ERAGINA GAZTETXOEN MUSIKA OHITURETAN

GRADU BUKAERAKO LANA

EGILEA: Azpiri Arriaga, Garazi

ZUZENDARIA: Alvarez Uria, Amaia



2014-2015 ikasturtea

LABURPENA

Musika ume eta gaztetxoek egunerokotasunean oinarritua den elementua da. Gaur egungo kontsumo gizartean zuzenean eragiten die, musikari dagokienean ere, beraiek ere kontsumitzaile izanik. Lanaren helburua hezkuntza informaleko gaztetxoek musika ohiturak eta gustuak nola eraikitzen dituzten ezagutzeko da eta hauek eraikitzerakoan hezkuntza informaleko agenteen eragina aztertzea. Horretarako, Gasteiz eta Markina-Xemeingo Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleek musika ohiturak eta gustuak ezagutuko dira galdetegi baten bidez eta beraien kantuak gustukoeneren diskurtsoaren analisia ere egingo da. Lortutako datuetatik abiatuz, hezkuntza formaleko musika-hezkuntzarako zenbait jardura proposatuko dira. Kantuak azterketa honi esker ondorioztatu dugunez, baloreen transmisiorako tresna garrantzitsua izanik eta emozioak eta sentimenduak sortzeko eta eragiteko duten gaitasuna kontuan hartuz, hauek ikuspegi kritikotik aztertzen irakastea garrantzitsua da. Beraz, ikasleek interesak eta gustuak kontuan hartuko dituen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak sortu behar dira, ikasle aktiboz osatutako musika hezkuntza eraikitzeko.

Hitz gakoak: Hezkuntza formala eta informala, musika ohiturak eta gustuak, musika hezkuntza lehen hezkuntzan, kantuak eta baloreak, ikuspegi kritikoa

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Marko teorikoa	4
2.1. Musika eta testuinguru orokorra	4
2.2. Hezkuntzaren dimentsio informala.....	4
2.3. Musika eta hezkuntza informala	5
2.4. Hezkuntza informaleko agenteak.....	5
2.4.1. Familia	5
2.4.2. Lagun-arteak.....	7
2.4.3. Mass mediak eta komunikabideak.....	8
• Internet	8
• Telebista	9
• Irratia	9
2.5. Musika eta kontsumoa.....	10
2.5.1. Musika gaur egun.....	10
3. Helburuak	11
4. Metodologia	12
4.1. Parte hartzaileak.....	12
4.2. Erabilitako tresnak	12
4.3. Prozedura.....	14
5. Emaidak	14
6. Ondorioak	28
7. Eskuhartzea egiteko proposamenak	31
7.1. Lehenengo jarduera	32
7.2. Bigarren jarduera.....	33
7.3. Hirugarren jarduera	35
8. Hobekuntza proposamenak	36
9. Bibliografia	37
10. Eranskinak	39
10.1. Galdetegia	39
10.2. Fitxa didaktikoak.....	40
10.3. Kantuen letrak	46

1. SARRERA

Gaur egungo jendartean musika negoziarako elementu bihurtu da. Enpresa diskografikoek kantuak produktuak bailiran saltzen dituzte eta bertatik etekinak ateratzen dituzte. Kantuen kalitatea ez da bermatzen, helburua ez da kalitatezko kantuak sortzea, hauetatik ahalik eta etekinik handiena ateratzea baizik.

Musika kontsumo eredu honek eragina du haur eta gaztetxoengan. Hezkuntzaren hiru dimentsioak aztertuz, hau da, hezkuntza informala, hezkuntza ez formala eta hezkuntza formala, musikaren komertzializazioa hezkuntza informalaren barruan kokatuko genuke bereziki.

Lan honen helburua Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleen musika ohiturak ezagutzea da eta bertatik hezkuntza informalak beraien musika gustu eta ohituretan duen eragina aurreikustea. Honez gain, bigarren eta hirugarren zikloko testuinguru desberdinetako ikasleen musika ohiturak konparatzea.

Horretarako, galdetegia diseinatu eta berau Gasteizko Arantzabela eskolako laugarren mailan eta Markina-Xemeingo Bekobenta eskolako bost eta seigarren mailan erantzun dute. Hemendik, emaitzak atera dira eta hezkuntza informalak beraiengan duen eragina ezagutu da. Horrez gain, ikertutako ikasleen kanturik gustokoenen zerrenda osatu eta kantu hauen diskurtsoaren analisia egin da.

Datuen analisiarekin, hezkuntza formalak ere honetan zeregina duela ondorioztatu da. Ondorioetan gaztetxoek musika entzuterako edo bizitzerako orduan dituzten hutsuneak identifikatu eta hutsune hauetatik eta ikasleen interes eta gustuetatik abiatuz, hiru jarduera proposatu dira, musika hezkuntzan lantzeko. Jardueron helburua hezkuntza informalean hain erraz entzuten den musikaren inguruko hausnarketa egitea izango da, musika zehazki ikuspegi kritiko batetik entzuteko baliabideak ematea, musikaren homogeneizaziotik haratago joatea eta musikaren kontsumitzaile soil izatetik, sortzaile izatera igarotzea, musikak sentimenduetan eta emozioetan eragiteko duen gaitasunak ematen dion potentzialtasuna aprobetxatuz. Horretarako, hots, ikasle sortzaileak izateko, ezinbestekoa da ikasleak ezagutzea, ikasleen gustuetatik abiatzea jarduera hauek eta beraiek protagonistak izatea. Izan ere, modu

honetan soilik izango baita posible ikasleak motibatzea eta hauek aktiboak izatea.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. MUSIKA ETA TESTUINGURU OROKORRA

Musikak pertsonen bizitzetan eragin handia dauka eta balore handiko elementua da. Egunerokotasunean musikak inguratzen gaitu eta gure jardunean uneoro musika entzuten ari gara, konturatu ere egin gabe.

Musika aldaketak jasaten dituen fenomeno sozial gisa ulertu behar da, izan ere, soziologiaren elementu guztiek eragiten baitute bertan (De la Ossa Martínez, 2011). Beraz, pertsonengan jokabideak transmititzeko gaitasun handia du. Musika, bizitza ulertzeko moduan agertu daiteke, baita aldarrikapenak edo adierazpenak zabaltzeko eta helarazteko tresna gisa ere. Hortaz, musikak, dantzatzeko edota lasaitzeko erabiltzen dugun arren, sakonagoak diren aspektuak lortzen lagundu ahal digu. De la Ossa Martínezen arabera, alderdi anitzak erakusten dituen errealitatea da, pertsonen garapenean eragina baitauka, bereziki alderdi emozionalean.

Ikuspegi historikotik prozesu kulturala izan da, eragin sozial handia izan baitu kultura guztietan, garaian garaiko aldarrikapenak musikaren bidez egin baitira, besteak beste. Ezaugarri kolektiboa ere badu, ideia bat transmititu nahi duen pertsona talde bat baitago horren atzean. Funtsean, musika eragin soziologikoa duen aldarrikapen soziala da, bizitza ulertzeko era eta kulturaren jokatzeko modu desberdinak sortu baititu.

Musika ekintza soziala da, jendarte, leku eta momentu zehatz batean garatzen baita, gainera, garai horretako ezaugarriak eta izaera erakusten ditu. Musika kultura baten sorkuntzaren oinarritzko jarduera bat da eta interakzio sozialean paper garrantzitsua du.

2.2. HEZKUNTZAREN DIMENTSIO INFORMALA

Hezkuntzaren helburua etorkizuneko bizitzarako pertsonak formatzea da. Hezkuntza elkarrekintza prozesu soziala da, edukiak, baloreak, ohiturak, kulturak eta jarduteko moduak transmititzen dituena.

Hezkuntzaren alderdi informala, ikaskuntzaren prozesuan bizitako esperientzien bidez ematen da. Barneratzen diren gaitasunak, edukiak eta jarrerak familiarekin, lagunekin eta *mass medi*ekin elkarrekintzan ematen dira (Coombs, 1986 in Cremades, 2008).

Ikaskuntza mota hau antolatu, egituratu eta sistematizatu gabea da. Transmittitutakoa aurrez jarritako helbururik gabe egiten da, hots, intentziorik gabeko da (García, 2005 in Cremades, 2008). Modu naturalean gertatzen da egunekotasuneko jardunean, jendartearekin harremanean ematen da. Ikaskuntza hau betierekoa da, bizitza osoan zehar egongo dena eta konstantea izango dena (Colom, 2003 in Cremades, 2008).

2.3. MUSIKA ETA HEZKUNTZA INFORMALA

Haurren garapenean musikaren ikaskuntzan hezkuntzaren bi dimentsioek eragiten dute. Alde batetik hezkuntza formalak eta beste alde batetik hezkuntza informalak. Haur eta gazteek beraien gustuak finkatzerako eta definitzerako orduan, beraz, dimentsio hauek eragileak dira. Gaur egunera arte egin izan diren ikerketen datuek dioten bezala, hezkuntzaren dimentsio informala da prozesu honetan eragile nagusia; Melillako Musika Kontserbatorio Profesionalako Lorezok, Herrerak eta Cremadesek (2008) egin zuten ikerketan ondorioztatu bezala. Dimentsio informalean, hala ere, agente desberdinak daude, bizitzaren etapa ezberdinetan bata edo bestea eragile nagusiena izanik. Musika gustuetan eragina duten agenterik garrantzitsuenak familia, berdinen arteko taldea eta komunikabideak edo *mass medi*ak dira (Rodríguez, Herrera, Lorenzo eta Álvarez, 2008). Eskola ere agente garrantzitsua da, baina ikerketa honetan hezkuntzaren dimentsio informalean zentratuko gara, berau baita eragile nagusia arlo honetan. Hala ere, eskuhartze proposamenak hezkuntza formalerako egingo dira.

2.4. HEZKUNTZA INFORMALEKO AGENTEAK

2.4.1. Familia

Familia hezkuntza informalean hezkuntza eragile garrantzitsua da, balore, jarrera, eduki eta rol desberdinak transmititzen dituen markoa (Zimmer-Gembeck eta Locke, 2007 in Herrera, Cremades eta Lorenzo, 2010). Gurasoek

haurrengan duten eragina handia da, beraien bidez haurrek lehenengo jakintzak eta jarrerak barneratzen baitituzte.

Hau guztiau, imitazioaren eta behaketaren bidez egiten dute. Harreman lotura estuak sortzen dira bertako kideen artean.

Familia artean giro positiboa sortzeak haurraren ikaskuntza prozesu integrala bermatzen du. Horregatik, haurrari uneoro konfiantza eta beharrezko autoestimua transmititu behar zaizkio.

Musikari dagokionez, haurrak familiarengandik jasotzen ditu musikaren lehenengo nozioak, modu intentzionalean izan edo ez (Cremades eta Lorenzo, 2007). Beraz, familiak musikarekiko duen interesa eta jakintzaren arabera izango da haurrak musikarekiko garatzen duen jarrera ere.

Haurren garapenean musikak eragina dauka, hortaz, musikak haurren garapeneko etapa ezberdinetan duen eragina azalduko da orain.

- **Etapa prenatala:** Ikerketa ezberdinen arabera familiaren eragina haurrengan, hauek jaio aurretik hasten da. Amaren sabelean egonda ere, ingurutik jasotzen dituen soinu estimuluek eragina baitute hauengan. Hemen agertzen dira lehenengo esperientzia musikalak.
- **Haurtzaroa:** Familiak eragin handiena duen eremua da. Musikarekin izaten duten harremana familia giroan gertatzen da, hauek haurraren garapen kognitiboan, emozionalean, sensorialean eta sozialean laguntzen dute (Bernal, 2001 in Andreu, 2007). Beraien musika gustuak familia giroan entzundako musika mota desberdinen arabera izango da (Diaz, 1999 in Andreu, 2007). Musikarekin izango dituzten lehenengo esperientziak biziko dituzte eta hauekin batera musikak eragindako sentazio desberdinak. Bizitza osoan zehar, musikarekin harremana izango dugu eta askotan bizitako esperientziak ekarriko dizkigu gogora. Gurasoen eta haurren arteko harremana garrantzitsua da identitate pertsonal-musikala sortzeko orduan. Press-en arabera (2000), kontzertu ezberdinetara joateak guraso eta haurren arteko harreman afektiboa indartzen du.
- **Aurre-nerabezaroa:** Haurrak hazten doazen heinean, aisialdia gurasoekin igarotzetik, berdinen arteko taldearekin igarotzera pasatzen dira, hau da, lagunekin igarotzera. Gazteak lagunekin izaten dituen

harremanak lehenesten ditu, gurasoekin duen harremanaren aurretik. (O'Connor, Haynes eta Kane, 2004 in Andreu, 2007). Lagunen arteko taldean, estilo musikalen gustuak eragin handia dauka, estilo horrek bizitzeko moduan ere eragiten baitu.

- **Nerabezaroa:** Estilo musikal desberdinen preferentzia nerabezaroan definitzen da (Brittin, 1991 in Andreu, 2007) Familiak eragin gutxiago du eta beraien aisialdia lagun taldera mugatzen da. Nerabezaroan, musika gazteen egunerokotasuneko bizitzan oinarritzko elementua da. Beraien musika gustuak modako estiloekin bat datoz. Komunikabideek eragin handia dute gazteengan etapa honetan (telebista, internet,...)

2.4.2. Lagun-arteak

Lagun-arteak hezkuntza informaleko beste eragile garrantzitsu bat da. Lagun-arteak nerabezaroko etapan du eraginik handiena, beraz, aro honen azalpena emango da orain.

Gazteak lagunekin partekatzen ditu, musika estilo jakin batzuen gustua, janzteko era, moda, aisialdiko tokiak edota entretenimendua. Hauek dira gazteek besteekin partekatuko dituzten esperientzia batzuk. Nerabezaroan lagun taldeak pisu handia dauka, taldean babestuta sentitzeko beharra izaten da aro honetan eta lagun talde horren babesa sentitzea bilatzen da.

Gaztaroaren eta haurtzaroaren arteko trantsizioan kokatzen da nerabezaroa. Hainbat gertaera batzen dira etapa honetan, gurasoekin gatazkak eta ezegonkortasun emozionala, esaterako. 11 eta 18 urte bitartekoak biltzen ditu aro honek.

Musikari dagokionez, beraien gustuak lagun taldeari lotuta egoten dira (Eyerman, 2002 in Andreu, 2007). Elkarrekin konpartitzen dituzten elementuen multzoa osatzen dute lagun taldean eta musika horietako bat da. Musika estilo jakin bat gustuko izateaz gain, gazteek bizitzeko modu bat partekatzen dute estilo horrekin batera doana. Musika ekintza soziala den heinean, praktika kulturala bilakatzen da gazteen artean, eta bizi eredu jakin bat erreproduzitzen dute (jarrerak, janzteko modua, ideologia...). Beraz, pertsonak identitate soziala eta kulturala osatzen dute ezaugarri komunak partekatzen dituen taldearen barnean (North eta Hargreaves, 2007 in Cremades, 2008). Musikari esker,

gazteek adierazteko bidea bilatzen dute, gizartearekiko desadostasuna edota emozioen kanporatzearekin batera, haien lekua topatu nahian.

2.4.3. Mass mediak eta komunikabideak

Sozializazio agente tradizionalari, beste agente garrantzitsu bat batu zaie, komunikabideak edo *mass mediak*. Hauek gazteen identitatearen eraikuntzan eragin handia dute (Téramo, 2006 in Herrera, Cremades eta Lorenzo, 2010), ikus-entzunezko estimulua sortzen baitute bideo-jokoen, pelikulen edota mugikorren bitartez irudia eta musika uztartuz.

Komunikabideek eduki informatiboak, kulturalak eta entretenimenduzkoak transmititzen dizkiote hartzaile heterogeneoari, era berean, hauek errealitatea desitxuratzeko eta eraikitzeko gaitasuna dute beraien interes komertzialen arabera (Lorenzo, 2004 in Cremades, 2008). *Mass mediak* ikuspegi kritikoa moteltzeko eta iritzi pertsonala aldatzeko gaitasuna du eta negatiboki eragin dezake hartzailearegan, errealitatearekin kontrastatu gabeko iritziak sortuz (Carpizo, 1999 in Cremades, 2008).

- **Internet**

Interneta ikaragarri zabaldu da azken urteetan, eta egun, informazioaren tratamendurako eta entretenimendurako tresna nagusienetariko bat bilakatu da. (Aumente eta Arquero, 1999 in Cremades, 2008) Edozein momentutan, gauden tokian gaudela munduko edozein tokitako informazioa jaso dezakegu modu librean, eta honek 2007an munduko biztanleriaren %20k interneta erabiltzea eragin zuen.

Gainontzeko komunikabide garrantzitsuak, telebista eta irratia esaterako, interneten abantailez baliatu dira eta beraien programak sarean ere jarri dituzte.

Arlo sozialetik begiraturaz gero, Internet eguneroko bizitzetan beharrezko tresna bilakatu dela esan genezake, bai arlo ekonomikoan, hezitzailean, sozial zein kulturean (erosketak egin, informazioa bilatu edo dokumentuak bidali ditzakegu, besteak beste).

Aukera hauek erabilgarriak dira jende guztiarentzat, baina batez ere gaztetxoentzat, izan ere, gaur egungo gazteria “ziber- generazioa” dela esaten baita. Baina hau arriskutsua izan daiteke, izan ere, kasu askotan gaztetxo hauek beraien kontura nabigatzen dute interneten, eta balore desegokiak

transmititzen dituzten hainbat bideo, jolas eta kantu jaso ditzakete, beraien jokabidean eragin zuzena izango dutenak. (Sánchez, 2006 in Cremades, 2008).

Internetek, hainbesteko eragina izanik bizitzaren alor desberdinetan, musikan ere badu bere eragina, eta ez edonolakoa gainera. Gaztetxoek edozein momentutan aurki dezakete nahi duten abestia Interneten, baina honek ez du entzuten duten musikaren kalitatea bermatzen. Kasu askotan, ona izan daiteke edozein unetan nahi den musika eskuragarri izatea, baina kontu handia izan behar da zein musika motari buruz ari garen, izan ere, bere arriskuak baititu. Interneten aurkitzen den musika komertzializatua izaten baita gehienetan eta beraz, saltzea dute helburu bakarra.

- **Telebista**

Telebista informazioaren transmisiorako, entretenimendurako eta formaziorako tresna garrantzitsua da. Hedatzeko duen gaitasunak eta edukien erakargarritasunak egungo hedabide nagusi bihurtzen dute. Komunikabideen artean jarraituena da telebista, gainera, gehien kontsumitzen dena da. Horrez gain, telebistak etxeko jarduna antolatzen du, beraz, entretenimendurako aparatua izateaz gain, etxeko errutinako parte da. Etxe gehienetan gaur egun, telebista bat baino gehiago dago eta hauek piztuta mantentzeko ohitura dago.

Telebistan zuzenean musikari buruzko programa gutxi daude eta hauen eragina ikasle eta gazteen gustuetan nabarmena da. Izan ere, programa askok arrakastatsuenak diren abestiak familien etxeetara heltzea lortu dute.

Ondorioz, musika estiloen homogeneizazioa ematen da, inolako ikuspegi kritikorik gabe kontsumituz. Pertsonak entzule pasibo bilakatzen dira. Familiek erakunde mediatiko nagusiek zuzenduriko moda, janzkera eta interes komertzialak onartu egiten dituztela baieztatzen du de la Ossa Martinezek (2011), askok musikalki duten maila baxuaz jabetu ere egin gabe. Horrez gain, gainerako estilo musikalak ez dira bideratzen, ezta hauek ezagutzera ematen ere.

- **Irratia**

Irratia komunikabideen artean garrantzitsua da, bigarren jarraituena baita. Irratia, telebista ez bezala, toki gehiagotan aurkitzen da, beraren funtzio praktikoa dela eta soilik entzuteko baita. Irratia entzuterako orduan gainera, ez

dago zertan arreta jarri, ohiko jarduerak egin bitartean ere entzun baitaiteke. (Haye, 1995 in Cremades, 2008).

Irratiak sormenaren eta irudimenaren garapena ahalbidetzen du. Ahotsaren bidez transmititzen da, albistea edota gertaera, entzuleak hortaz, irudizko estimulurik ez dagoenez, bere baitan erreproduzitzen ditu (Shields, 1992 in Cremades, 2008).

Bestalde, irriaren eta musikaren arteko harremana estua da. Ikerketa desberdinek erakutsi dute (de Borafull, 2005 in Cremades, 2008), nerabe eta gazteek entzuten dituzten irriari kate gehienak musika kateak direla. Hedabide honek musika tendentziak markatzen ditu eta gazteen gustu musikaletan eragiten du, musika kontsumoan gehien entzuten diren estilo eta artisten kantuak indartuz, irriari kate nagusienetan, behinik behin.

2.5 MUSIKA ETA KONTSUMOA

Gaur egun musika edonon eta asko entzuten da, dendetan eta tabernetan, esaterako. Hauetan entzuten direnak kantu komertzialak izaten dira gehienetan, marketingera bideratuak. De la Ossa Martínezen arabera gaur egun, ez da kalitatezko musikarik bermatzen eta gehien entzuten direnak “erabili eta botatzeko” esamoldearekin definitzen ditu (2011).

Musika mota hau zinema, telebista, publizitatea eta interneten topa dezakegu erraz. Arriskutsua da, gure jarrera pasiboa izaten baita hauek entzuterako orduan. Ez dugu entzuten ari garen musikaz pentsatzen eta hausnartzen, kritikotasunik gabe jasotzen dugu, filtrorik gabe.

2.5.1. Musika gaur egun

Gaur egun garapen edo aurrerapen teknologikoak direla eta musika nonahi eta nolanahi kontsumitu dezakegu. Hau horrela da informazio kantitate handia dagoelako eta horrekin batera musika material asko baitago eskuragarri.

De la Ossaren arabera (2011), industria diskografikoek sistema kontrolatzen dute eta beraiei komeni zaien musika baino ez dute sustatzen. Musika negozio bilakatzen dute, musikaren berezko hezkuntza gaitasuna baztertuz eta bestelako funtzioak deuseztatuz. Musikak duen sormen eta gozamen gaitasunak alde batera uzten dituzte, ekonomia kalitatearen gainetik

jartzen dutelako eta helburua bertatik etekina ateratzea bihurtu da, hau da, negozio hutserako erabiltzen da.

Aipatutako guztiagatik musika gaur egungo gizartean, kontsumorako beste produktu bat da. Diskografia multinazionalak eta enpresak sortutako musika industria sortu da. Hauen helburua, enpresa guztiak bezala, produktua saltzea da. Horretarako, tresna indartsua erabiltzen dute, publizitatea, hain zuzen ere (de la Ossa Martínez, 2011).

Hau guztiau kontuan izanda, garrantzitsua da ikasleek kritikotasunari lotutako jakintza eta irizpide batzuk izatea, zein musika estilo entzutea gogoko duten eta hauek entzutera eramaten dituzten arrazoiak zeintzuk diren, beraien kabuz erabaki ahal izateko. (Hargreaves eta Marshall, 2003 in Cremades, 2008). Horrela, hedabide nagusiak eta enpresa diskografikoak beraien musika ohiturak eta musika gustuak eraikitzea ekidingo bailitzateke (Herrera eta Cremades, 2011) eta haien autonomia eta identitatea garatuko.

3. HELBURUAK

Lan honekin lortu nahi diren helburuak jarraian puntuka adieraziko dira:

- Haurren garapenean musikak duen eragina ezagutzea
- Ikasleen kanturik gustukoenen zerrenda osatzea eta bertan transmititzen diren baloreak aztertzea.
- Hezkuntza informalak haur eta gazteen ikaskuntza prozesuan duen eragina egiaztatzea. Horretarako, hezkuntza informaleko agenteen transmisioa aztertzea (familia, adiskideak eta *mass media*).
- Musika ohituren inguruan 2. zikloko ikasleen eta 3. zikloko ikasleen artean dauden desberdintasunak ezagutzea eta desberdintasun horiek zergatik ematen diren ondorioztatzea.
- Herri eta hiriko ikasleen musika ohitura desberdinak detektatzea.
- Hezkuntza informalaren eraginaren aurrean ikuspegi kritikoa eta sormena sustatuko dituen jarduerak proposatzea.

4. METODOLOGIA

4.1. Partehartzaileak

Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleei egin zitzaien galdeketa. Bi zentro desberdinetan gauzatu zen, Gasteizko Arantzabela ikastolan eta Markina-Xemeingo Bekobenta eskolan, biak ere publikoak eta D eredukoak. Gasteizek 240.000 biztanle ditu eta Markina-Xemeinek, berriz, 5.000. Hiriak eta herriak ikasleen musika ohituretan eragina duen ala ez ikusteko aukeratu ziren bi errealitate hauek. Gasteizko biztanleriaren %64,7 erdaldun elebakarra da eta Markina-Xemeinen aldiz, biztanleriaren %88 da elebiduna. Beraz, euskararen erabilera eta euskal kulturaren errealitatea desberdina da bi tokietan.

Horrez gain, Lehen Hezkuntzako bi ziklo desberdinetan egin zen ikerketa, musika ohituren inguruan etapa bakoitzean dauden ezberdintasunak aztertzeko. Arantzabela ikastolan, bigarren zikloan, 24 ikasleri egin zitzaien galdeketa eta Bekobenta eskolan, hirugarren zikloan, 40 ikasleri; hortaz 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilei. Guztira, 64 ikasleen erantzunak aztertu dira.

4.2. Erabilitako tresnak

Datuen bilketa egin ahal izateko galdetegia egin da, ikasleek dituzten musika ohiturak ezagutzeko. Galdetegia anonimoa da, 11 galderek osatzen dute eta galdera guztiak irekiak dira. Bertan, Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleen musika ohiturak ezagutzeko galderak biltzen dira.

Galdetegia metodologia mistoan oinarritzen da, hau da, ikerketa kuantitatiboan eta kualitatiboan. Ikerketa kuantitatiboak paradigma positibista barnebiltzen du eta honetan, datuak objektiboak izango dira, ikerlariaren funtzioa pasiboa izango delarik. Ikerketa kualitatiboak berriz, paradigma interpretatzaile zein kritikoa hartzen ditu bere gain eta honetan ikerlariaren funtzioa guztiz aktiboa izango da, testuinguruaren zein bilatzen ari den ideiarengatik inguruko etengabeko hausnarketa prozesua eskatzen baitu (Flick, 2011 in López González).

Hau guztiau kontuan izanda, hezkuntzari lotutako edozein ikerketak, bi metodo hauetatik abiatutako ikerketa bat behar du, eta hori da hain zuzen metodo mistoa (Cohen, 2011 in López González). Metodo hau, bi metodoen

konbinaziotik haratago doa, metodoaren eta epistemologiaren arteko desorekan beste balio bat lortzea du helburu, arazoak ekidinez (Teddlie y Tashakkori, 2003 in López González). Metodologia mistoa hirugarren metodologia gisa ulertzen da, tradizio positibista eta interpretatzailearen arteko paradigma berri moduan. Tashakkori-k eta Creswell-ek honela definitzen dute metodo mistoa:

“Una investigación en la que el investigador recoge y analiza datos, integra los hallazgos y perfila inferencias usando ambas aproximaciones, cuantitativas y cualitativas, tanto en un simple estudio como en un programa de investigación más general.” (Tashakkori eta Creswell, 2007, 4 orr.).

Galdetegiko 3., 4., 5., 6., 9. eta 10. galderetan metodologia kuantitatiboa erabiltzen da. 1., 2., 7, 8 eta 11. galderetan, aldiz, kualitatiboa.

Galdetegia hiru bloketan banatzen da:

1. Lehenengo blokea 1. eta 2. galderek osatzen dute. Galdera hauen helburua kontsumoak musikan duen eragina aztertzea da.
2. Bigarren blokea 3., 4., 5., 6, 9. eta 10. galderek osatzen dute. Hauen helburua musika entzutean dituzten ohiturak ezagutzea da eta bloke honetan, galdera egin ostean parentesi artean jartzen dira erantzun posible batzuk, ikaslearen lana errazteko asmoz.
3. Hirugarren blokea 7. eta 8. galderek osatzen dute. Honetan, musikarekin duten harremanaz jabetzea da helburua.

Galdetegiaz gain, erabili den beste tresna diskurtsoaren analisia izan da. Diskurtsoaren analisia bizitza sozialaren eremu guztietan sortzen diren praktika diskurtsiboak ulertzeko tresna bat da, hizkuntzaren erabilera dagoenean, izan ahoz ala idatziz (Calsamiglia eta Tusón, 1999:26). Diskurtsoa ezberdina izango da bizitzako eremu desberdinetan, berau moldatu eta egokitu egiten baitugu egoeraren arabera. Diskurtsoaren analisia egitea diskurtsoa ikuspegi kritiko batetik aztertzea da. Horrez gain, diskurtsoa ez da soilik kokatzen ekintzen eta jokaeren mailan, baizik eta ezagutzen ere, hots, ezagutzen manipulazioa, jarrera eta ideologiak, arau eta balioak izaten ditu (Van Dijk, 2008). Diskurtsoek gertaerak transmititzeaz gain, bizitzako errealitate desberdinak ezagutzeko gakoak ematen dizkigute.

Analisia egiteko galdetegian jasotako ikasleen kanturik gustukoenak erabili dira. Kantuen edukiaren arabera 5 talde desberdin banatu dira eta kantu

bakoitza horietako batean kokatu da. Hauek dira bost taldeak: Identitatea eta rola, maitasuna eta sexualitatea, elkartasuna eta aniztasuna, askatasuna eta poztasuna eta kritika soziala.

4.3. Prozedura

Ikasleen musika ohiturak ezagutzeko helburuarekin, gerora burutu beharreko ikerketa lanerako baliagarriak izango ziren 11 galderez osatutako galdetegia diseinatu zen.

Galdetegia pasatu aurretik tutoreekin hitz egin eta beraiekin adostutako orduan ikasgelara joan, galdetegiaren nondik norakoak azaldu eta ikasleek galdetegia erantzun bitartean zalantzaren bat baldin bazegoen bertan egotea izan ziren galdetegi biak pasatzerakoan aurrera eman ziren pausoak. Gasteizen, praktiketako egonaldi batean egin zen galdeketa, 2013-2014 ikasturtean. Markina-Xemeinen zuzendariaren eta tutorearen baimena jaso ostean, klase ordu batera joan eta galdetegia pasatu zen 2014-2015 ikasturtean.

Behin galdetegiak jasota, datuak bildu ziren, testuinguru horietako musikaren egoeraren analisia egiteko. Honen ondoren, galdetegitik ateratako emaitzekin diagnosis eta kantuen diskurtsoaren analisia egin zen eta azkenik, eskuhartze proposamen bat diseinatu zen, hezkuntza formalean baliatzeko.

5. EMAITZAK

Galdetegia 3 bloketan banatuta dago eta emaitzak ere 3 bloke hauetan azalduko dira.

Lehenengo blokean, musika estiloak eta kanturik gustukoak agertzen dira, eta horretarako, jarraian agertuko diren bi galderak erabili dira. Galdetegia ikusteko jo eranskinetara.

1. Zein musika mota entzuten duzu?

Bigarren zikloko ikasleen %75k eta hirugarren zikloko ikasleen %25k, ez dute galderak eskatutako erantzuna eman. Erantzun zuzena eman dutenen artean irtendako emaitzak ageri dira jarraian, ehunekotan.

	2.ZIKLOA	3.ZIKLOA
Pop	66,7	86
Hip Hop	0	3,3
Rock	66,7	36
Elektronikoa	0	10
Klasikoa	16,7	3,3
Rap	0	6,7
Euskal musika	16,7	0
Heavy metal	16,7	0

2. Kanturik gustukoenen zerrenda:

Ikasle bakoitzari gustukoenak zaizkien 5 kantu idazteko eskatu zitzairen. Ziklo bakoitzeko kantu guztiak batuta, gustukoenak diren 10 kantuko zerrenda osatu da.

Lehenengo, bigarren zikloko ikasleen kanturik gustukoenen zerrenda aurkeztuko da, guztira 24 ikasle direnak. Zerrendako lehenengo 4 kantuek boto kopuru bera lortu dute, 3 boto guztira eta azkeneko 6 kantuek ere boto kopuru bera jaso dute, bina boto guztira.

1. Can't hold us (3)
2. Ilargia (3)
3. Sexy senorita (3)
4. Gaba zerueri begire (3)
5. Ai se eu tu pego (2)
6. Paquito (2)
7. Danza Kuduro (2)
8. Sube la mano arriba (2)
9. Osito gominola (2)
10. Monster (2)

Jarraian hirugarren zikloko ikasleen zerrenda aurkeztuko da, 40 ikasleen zerrenda da honako hau. Parentesi artean kantuek jaso dute boto kopurua agertzen da. Hona hemen zerrenda:


1. Happy (21)
2. Zarena zarelako (17)

3. Euritan dantzan (11)
4. The fox (9)
5. Lagrimas desordenadas (9)
6. Mandanga style (6)
7. Hey brother (5)
8. Rico deprimido (5)
9. Solo tú (4)
10. Itsasoa gara (4)

Bigarren blokean sei galdera agertzen dira, baten barruan bi galdera daude beraz, zazpi galdera izango dira. Galdera hauetan, ikasleen musika ohituren inguruko emaitzak izango dira ikusgai. Galdera bakoitzean grafiko bat ageri da eta guztietan bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleen emaitzak banatuta agertzen dira. Bigarren zikloko ikasleenak kolore urdinez agertzen dira eta hirugarrenenak, berriz, morez. Jarraian galdera bakoitzaren erantzunak ikusiko dira, banan-banan.

1. Norekin entzuten duzu musika?

Galdera honetan ikasleen erantzunak ehunekotan daude jasota, zikloka banatuta. Galdera honetan ikasleek erantzun bat baino gehiago eman zuten.




Bigarren zikloko ikasleen %54,1k bakarrik entzuten du musika, %45,8k lagunekin, %58,3k gurasoekin eta %41,6k neba-arrebekin.

Hirugarren zikloko ikasleen %70k bakarrik entzuten du musika, %67,5k lagunekin, %10k gurasoekin eta %25k neba-arrebekin.

2. Noiz entzuten duzu musika?


Azpiko grafikoan erantzuna zuzen eman dutenen arteko ehunekoen portzentaia ikusiko da.



Bigarren zikloko ikasleen %29,2k eta hirugarren zikloko ikasleen %10k ez dute galderak eskatzen zuen erantzuna eman. Ondo erantzun duten ikasleen erantzunetatik abiatuz, bigarren zikloko %23,5k astebururo entzuten du musika, %70,6k egunero eta %5,9k inoiz ez. Hirugarren zikloko ikasleen artean, %52,7k astebururo entzuten du musika eta %47,2k egunero.

3. Zenbat aldiz entzuten duzu musika egunean?

Hemen ere, erantzunen portzentaia ehunekotan ageri da, zikloka banatuta.




Bigarren zikloko ikasleen %20,8k egunean batuetan entzuten du musika, %45,8k askotan eta %33,4k gutxitan.

Hirugarren zikloko ikasleen artean, %12,5k egunean batzuetan entzuten du musika, %37,5k askotan eta %50k gutxitan.

4. Nondik lortzen duzu musika?

Erantzunen portzentaia ehunekotan agertzen da eta galderako erantzun bat baino gehiago ematea posible da.




Bigarren zikloko ikasleen %66,7k internetez eta 45,8k CDetatik lortzen dute musika. Beraietako askok, musika lortzeko bi moduak erabiltzen dituelarik.

Hirugarren zikloan, ikasle batek erantzun okerra eman du eta beste ikasle batek, bi erantzunak eman ditu. %9,4k internet bidez lortzen du musika eta %5,1k berriz CDetatik.

5. Nola entzuten duzu musika?

Hemen ere, erantzunen portzentaia ehunekotan ageri da, zikloka banatuta. Ikasle bakoitzak erantzun bat baino gehiago eman zezakeen galdera honetan.




Bigarren zikloko ikasleen %33,3k MP4an, %29,2k musika aparatuan, beste %29,2 batek ordenagailuan eta %16,7k MP5ean entzuten du musika.

Hirugarren zikloko ikasleen %2,5k MP3an, %12,5k MP4an, %30k ordenagailuan, %87,5k mugikorrean, %2,5k irratan eta %2,5k Ipodean entzuten du musika.

6. Non entzuten duzu musika?


Galdera honetan, erantzunen portzentaia ehunekotan ageri da, gainera, erantzun bat baino gehiago ematea posible da.



Bigarren zikloko ikasleen %25k, ez du galdera erantzun. Goian ageri den grafiko honetan erantzun dutenen artean kalkulaturako portzentaien datuak ageri dira. Galdera ongi erantzun duten ikasleen %72,2k etxean, %16,7k kotxean, %5,6k tabernan, %11,1k kontzertuetan, %11,1k kanean eta %5,6k toki guztietan entzuten du musika. Hirugarren zikloan ikasle guztiek erantzun dute galderak eskatzen zuena eta ikasleen %72,5k etxean, %67,5k kanean eta %2,5k parkean entzuten du musika.

7. Nola ezagutzen dituzu kantu berriak?

Galdera honetan ere, erantzunen portzentaia ehunekotan ageri da, gainera, erantzun bat baino gehiago ematea posible da.



Bigarren zikloko ikasleen %54,2k irrati bidez, %50k telebista bidez, %8,3k lagunaren bidez, %16,6k etxekoaren bidez eta %12,5k neba-arreben bidez ezagutzen dituzte kantu berriak.

Hirugarren zikloko ikasleen %20k irrati bidez, %30k telebista bidez, %82,5k lagunaren bidez, %7,5k etxekoaren bidez eta %5k neba-arreben bidez ezagutzen dituzte kantu berriak.

Hirugarren blokean beste bi galdera aztertzen dira eta honetan, musikak ikasleen bizitzetan duen funtzioa eta eragina azaltzen dira. Galdera hauen erantzuna adierazteko taula, ziklograma eta grafikoa erabili dira, hemen ere zikloka banatuta.

1. Zertarako entzuten duzu musika? Zer ematen dizu?

Galdera honetan erantzunak taula batean ageri dira. Ikasleek erantzun bat baino gehiago emateko aukera izan dute. Hona hemen taula:


	2.ZIKLOA	3.ZIKLOA
Erlaxatzeko	18,2	35,9
Entretenezeko	18,2	28,2
Animatzeko/Motibatuzeko	40,9	66,7
Dantzatzeko/Abesteko	13,6	17,9
Askatzeko	0	2,6
Ezer ez	18,2	0

2. Zein da musikarekin duzun harremana?


Galdera honetan, bi galdera daude. Bata musikarekin harremana duten ala ez ikusteko eta baiezkoa den kasuan harremana nolakoa den ikusteko. Lehenengo galderaren erantzuna bi ziklogramekin adierazi da, bata bigarren zikloari dagokio eta bestea hirugarrenari. Bigarren galderaren erantzuna adierazteko berriz, grafikoa erabili da.

Ba al duzu harremanik?


2.ZIKLOA



3.ZIKLOA



Musikarekin harremana duten ikasleen artean, zein harreman duten aztertu da, erantzun bat baino gehiago onartuz.



Bigarren zikloko ikasleen artean, %95k instrumenturen bat jotzen du eta %40k abestu.

Hirugarren zikloko ikasleen artean, %92,5k instrumenturen bat jotzen du, %67,5k abesten du, %7,5k musika entzuten duela esan du eta %2,5k dantzatu egiten duela.

Emaitzekin amaitzeko, hirugarren zikloan egin zen galderaren erantzuna ikusiko da jarraian. Galderaren helburua ikasleak musika hezkuntzako saioetara gustura joaten diren ala ez ikustea da eta horretarako ziklograma erabili da. Hona hemen:

Gustura joaten zara musikako saiora?



Galdera honetan ikasleen %52,5k musikako saiora ez direla gustura joaten esaten du eta gainontzeko 47,5ak berriz baietz.

Kantuen diskurtsoaren analisia

Galdetegitik jasotako kantuen zerrenda erabiliko da gazteek entzuten dituzten kantuen diskurtsoa aztertzeko. Horretarako, diskurtsoaren analisia egingo da, hau da, kantuetan esaten dena ikuspegi kritikotik aztertuko da eta abestia gaur egungo jendartean kokatuko da (Calsamiglia eta Tusón, 1999:26). Horrez gain, testuak aztertu eta hauek transmititzen dituzten baloreak eta mezuak zeintzuk diren ikusiko da, testuek eta diskurtsoek gertaerak kontatzeaz gain, baloreak, jarrerak eta ideologiak ere transmititzen baitituzte (Van Dijk, 2008).

Kantuen letren tematikari erreparatuz gero, 5 bloke desberdinetan bana daitezke. Identitatea eta rola, maitasuna eta sexualitatea, elkartasuna eta

aniztasuna, askatasuna eta zoriontasuna eta kritika soziala. Jarraian, kantu bakoitza bloke batean kokatu eta adibideren bat jarriko da (Kantuen letrak ikusteko jo eranskinetara):

Identitatea eta rola (Emakumearen eta gizonaren rola):

- Sexy señorita (Abraham Mateo) gazteleraz eta ingelesez:
 - *“Need a big girl not a chiquitita”*
 - *“You're my cenicienta”*
- Mandanga style (“La que se avecina” telesaia) gazteleraz:
 - *“Pibitas del mundo”*
 - *“Te voy a dar salami aquí en la arena”*
- Ai se eu tu pego (Michel Teló) portugesez:
 - *“Ai se eu te pego, ai ai se eu te pego” (¡Ay! si te cojo ¡Ay! si te cojo)*
 - *“E passou a menina mais linda, tomei coragem e comecei a falar” (Y pasó delante de mí la chica más guapa, me armé de valor y le comencé a hablar)*
- Danza kuduro (Don Omar) gazteleraz:
 - *“Quien puede parar eso que al bailar, descontrola tus caderas (sexy), y ese fuego que quema por dentro y lento te convierte en fiera”*
- Monster (Eminem eta Rihanna) ingelesez:
 - *“I wanted the fame, but not the cover of Newsweek” (Fama nahi nuen, baina ez egunkariko azala)*
- Zarena zarelako (Sugan) euskaraz:
 - *“Eutsi borroka bakarrari, izatera heltzeko, zarena zarelako”*
 - *“Aurrera jarraitzeko atzera ez begiratzeko”*
- Can't hold us (Macklemore eta Ryan Lewis) ingelesez:
 - *“Learn from that failure gain humility and then we keep marching ourselves” (Aprende de ese error, gana humildad y luego seguimos nuestro camino)*
- The fox (Ylvis) ingelesez:

- *“But there’s one sound, that no one knows. What does the fox say?” (Pero hay un sonido, que nadie conoce. ¿Qué dice el zorro?)*
- *“You’re my guardian angel. Hiding in the woods. What is your sound?” (Tú eres mi angel de la guardia. Oculto en el bosque. ¿Cuál es tu sonido?)*

Kantu hauek identitatean eragiten dute, zuzenean. Gazte eta gaztetxoek kasuan, gainera, bigarren sozializazio prozesuan daudenez, kantu hauek beraien nortasuna eraikitzean eragiten dute.

Kantu batzuek emakumeen eta gizonaren rola zehazten dituzte. Emakumeari pasiboa, lotsatia, iniziatiba gabekoa, itzaroten jakin behar duena eta sumisua bezalako rola esleitzen zaizkio. Gizonari berriz, indartsua, iniziatibaduna, sexurako desio handia duena eta dominantea. Kantu hauetatik, genero bakoitzari ezartzen zaizkion rola jasotzen dituzte eta ondorioz, hauek erreproduzitu eta beraien identitatea definitzen dute. Genero femeninoa dutenek aurrez aipaturako rola barneratuko dituzte eta genero maskulinoa dutenek berriz, besteak. Hauetatik, menpekotasunezko harremanak eraikitzen dira. Talde honetako lehenengo lau kantuetan ematen da rol banaketa hau.

Beste kantu batzuek aldiz, gatazka ezberdinen aurrean nola jokatu erakusten dute. Norbere buruarekin izaten diren barne gatazkak nola konpondu edota egoera desberdinen aurrean aurrera egiteko indarra transmititzen dute. “Monster”, “Zarena zarelako” eta “Can’t hold us” kantuak dira honen adibide. Azken kantuan ere nortasunarekin zerikusia duten elementuak ageri dira. Kasu honetan, aingeru guardakoaren figura agertzen da, bakoitzaren zaindari edota indar iturri izan daitekeena.

Kantu hauek, arlo musikaletik aztertuz gero, udako kantuak dira, nagusiki. Hauetako asko jai giroan eta taldean entzuten dira. Giro horretan dantzara eta ligatzera bideratutako abestiak dira. Aisialdian eta besteekiko harremanetan entzuten diren abestiak dira eta giro horietako erreferente bihurtzen dira udako kantu hauek.

Maitasuna eta sexualitatea

- Lagrimas desordenadas (Melendi) gaztelera:
 - *“Soy un superman que busca tu cabina”*

- *“Y cuanto más vacía, más alta es la verja que salto pa huir”*
- *“Mi corazón no ha encontrado a su medio limón”*
- Solo tú (Carlos Rivera) gazteleraz:
 - *“Ninguno de ellos, te quería como yo”*
 - *“Porque sólo tú... haces que lllore riendo, haces que ría llorando”*
- Hey Brother (Avicii) ingelesez:
 - *“For you there's nothing in this world I wouldn't do” (No hay nada en este mundo que yo no haría por ti)*
- Ilargia (Ken 7) euskaraz:
 - *“Eusten nauen soka zara eta itotzen nauena, ametsak sortu zizkidana, galtzen dituena”*
- Osito gominola (Gummy bear) gazteleraz eta ingelesez:
 - *“Yo soy tu gominola”*
 - *“Osito gomi, gomi dulce”*
 - *“Baile, and gomi fiesta”*
- Itsasoa gara (Eñaut Elorrieta) euskaraz:
 - *“Gure ametsaren bidean izan garelako, oraindik ere bagara eta beti izango gara”*

Maitasunari eta sexualitateari egiten diete erreferentzia kantu hauek, orokorrean harremanei, nagusiki, bikote harremanei. Kantu gehienek, maitasun erromantikoaren eredia islatzen dute. Bikote harremanetan, bata bestea gabe norbera ezer ez dela uste izanda, dena emateko prest egotea besteagatik, zeloek asko maite izatea esan nahi dutela edota norberaren laranja erdia bilatzea, osoa izateko. Bikote harremanak amaitzean, bizitza zentzurik gabe gelditzen dela esanez. Gainera, monogamiara eta heterosexualitatera bideratutako errealitateak baino ez dituzte erakusten kantu hauek. Kantu hauetan “nirea zara” bezalako esaldi posesiboak asko agertzen dira, menpekotasun harremanak islatzen dituztenak. Talde honetako lehenengo bost kantetan ikus dezakegu hau.

“Itsasoa gara” abestian, aberriarekiko maitasuna ageri da, hau da, herriarenganako maitasuna adierazten da eta beragatik borrokatzeak merezi izan diola esaten du, orain gauden tokira heltzeko.

Kantu hauek aurreko taldean ez bezala, ez dira udako kantu bilakatzen. Orokorrean, talde batek ateratako album bateko *singleak* izan ohi dira. Kantuak lasaiak eta baladak dira eta bakarrik entzuten dira normalean. Ez daude jai giroari zuzenean lotuta, ezta dantza egiteari ere, baina aurreko taldekoek bezala, nerabeen identitate eta harremanak eraikitzen dituzte.

Elkartasuna eta aniztasuna

- Paquito el chocolatero (King Africa) gazteleraz:
 - *“A gozar con paquito el chocolatero vamos paquito que siga la fiesta”*
 - *“Los moros y los cristianos nos ponemos en posición”*
- Sube las manos pa' arriba (Pitbull), gazteleraz eta ingelesez
 - *“Todo el mundo, pa' arriba pa' arriba Todo el mundo, pa' gozar la vida”*
 - *“Es la invasión de los latinos, todo el mundo, bienvenido!”*

Abesti hauetan izenburuan aipatutako baloreak transmititu nahi dira, desberdinen arteko bizikidetzaren posible dela erakusteko. Horretarako, jai giroa erabiltzen da, jaiak berezkoa duen potentziala aprobetxatuz. Kantu hauek udako kantuak izan ohi dira eta festa giroan entzuten dira. Taldean dantzatzeko izaten dira normalean eta hori da indartu nahi dutena, komunitatea eta talde baten partaide izatea.

Askatasuna eta zorientasuna

- Gabak zerueri begira (Gatibu) euskaraz:
 - *“Amaittu da ilunien triste bizi behar edo maitte sirimirixe. Eguzkixeri atiek zabaldu egingo deusodaz, zabaldu eta kuku egin”*
 - *“Erropa kendu biluzik dantza egin, txiribueletak emon ilargi azpizen maite dodaz lainoak txorixek buruen”*
- Euritan dantzan (Gatibu) euskaraz:
 - *“Topera nau, geur inork ez nau geldituko”*
 - *“Aske sentitzen naz ni, busti-bustitte”*
- Happy (Pharrell Williams) ingelesez:

- *“Because I'm happy, clap along if you feel like that's what you want to do” (Porque soy feliz, da palmas si sientes que eso es lo que quieres hacer)*

Talde hauetako kantuak aske eta pozik sentitzeko beharra transmititzen dute eta horretarako tarte eskaintzen dute. Norberari indarra emateko eta motibatzeke izaten dira eta musikaren alderdi emozionala agerian uzten dute. Aurretik esan bezala, musika animatzeko erabiltzen dugu eta hauek horren adibide argiak dira. Hauek festa giroan eta taldean entzuten dira nagusiki, alabaina, ez dira udako kantuak izaten.

Kritika soziala (Sistema kapitalistari kritika)

- Rico deprimido (Kaotiko) gaztelerez:
 - *“Voy a coger mi avión, volar sobre el ancho mar, quiero estar en California para el desayuno”*
 - *“Estoy deprimido, estoy tan aburrido, soy un rico deprimido”*

Talde honetan gizarteari kritika egiten dion kantua dago. Kasu honetan, aberatsei eta beraien bizitzari egiten die kritika. Nahi duten guztia eduki arren, pozik bizi ez direla erakusten du abestiak eta mezu hori transmititzea du helburu, hain zuzen, mendebaldeko kulturak “irabazle” izateko markatzen digun bidea egin duen bati buruz ari da eta zoriontasuna ez dela hori esaten du. Kantu hau lagun artean ezagutzen denetakoa da, ideologia jakin bat partekatzen dutenen artekoa.

6. ONDORIOAK

Lehenengo blokean argi ikusten da musika motengatik galdetzen zaienean, ez dituztela hauek ezagutzen. Arazo hau batez ere bigarren zikloan nabaritzen da, ikasleen %75k ez baitu musika motarik aipatu. Erantzun ona eman dutenen artean, Pop musika estiloa izan da erantzun nagusia eta honek agerian uzten du musikaren homogeneizazioa. Musika estilo honen atzean interes komertzialak dira nagusi eta agerian geratzen da hau hain modu esanguratsuan gailentzean (De la Ossa Martínez, 2011)

Kanturik gustukoenen inguruan galdetzen zaienean ere, zerrendan ateratzen diren kantu gehienak pop motako kantuak dira, kantu komertzialak.

Kantu guztiak poperoak izateaz gain, euskarazko kantu gutxi agertzen dira zerrendan. Ingeleseko zein gaztelaniazko kantuak dira nagusi eta hemen argi ikusten da musikaren negozioaren indarra, kantu bat komertzial egin eta mundu guztian barrena entzuteko gaitasuna baitaude kultura batzuek.

Bigarren blokean ikusten da bakarrik entzuten dela musikarik gehien, baina norekin entzuten den galderaren erantzunari erreparatuta, atentzioa deitzen digu bigarren ziklotik hirugarren ziklora egiten duten saltoak. Bigarren zikloan %45,8k entzuten du musika lagunekin eta %58,3k gurasoekin. Hirugarren zikloan berriz, %67,5k entzuten du musika lagunekin eta %10k gurasoekin. Hemen argi ikusten da bigarren zikloko ikasleen agenterik garrantzitsua familia dela, batez ere gurasoak eta hirugarren zikloan berriz, lagun taldea bilakatzen da agente nagusi, gurasoen presentziak behera egiten duelarik (O'Connor, Haynes eta Kane, 2004).

Musika egunero entzuten dutela dio bigarren zikloko ikasleen %70,6k eta hirugarren zikloko ikasleen %47,2k. Musikaren presentzia beraz egunerokotasunean dago gaztetxoek bizitzetan eta oso garrantzitsua da musika ikuspegi kritiko batetik entzutea (Hargreaves eta Marshall, 2003).

Musika lortzeko erabiltzen duten bidearen inguruan galdetzen denean, bigarren zikloko ikasleen erantzunetan CDak gailentzen dira erantzunen artean eta hirugarren zikloan Internet. Honekin guztiz lotuta dago nola entzuten duten galderaren erantzuna ere. Izan ere, bigarren zikloko ikasleek musika aparatua erabiltzen baitute nagusiki musika entzuteko eta hirugarren ziklokoek berriz mugikorra. Hemendik ondorioztatzen da, aparatu elektronikoek eta teknologia berriek gaztetxoek bizitzetan duten eragina handia dela, eta lehen esan bezala, ziber-belaunaldia direla.

Bigarren zikloan kantu berriak ezagutzeko orduan, telebista eta irratiak dira agenterik garrantzitsuenak, hauek duten publizitaterako eragina agerian geratzen delarik. Irratiari dagokionez, hemen ikusten da irratiak musika tendentziak markatzen dituela eta gazteen gustu musikaletan eragiten duela (de Borafull, 2005). Hirugarren zikloan, lagunak izaten dira kantu berriak ezagutzeko orduan agente nagusia, baina esan beharra dago, internetaren eta gailu elektronikoek baldintzapean daudela gaztetxo hauek eta beraz, lagunak bitartez ezagutzen dutela erantzun arren gehienek, internetaren

eragina dagoela guzti horren atzean. Argi dago beraz, sozializazio agente tradizionalei beste agente batzuk batu zaizkiela eta ez edozein modutan gainera, agente nagusi bilakatu baitira. Horrez gain, galdera hauetan, argi ikusten da bigarren ziklotik hirugarrenera ematen den aldaketa, hau da, haurtzarotik nerabezarorako jauzia. Ikasleak hazten doazen heinean, aisialdia gurasoekin igarotzetik, lagunekin igarotzera pasatzen baitira, aurrenerabezaroko etapan esan bezala eta beraien gustuak lagun taldeari taldeari oso lotuta daude (Eyerman, 2002).

Hirugarren blokean musikak zer ematen dien edo musika zertarako entzuten duten galdetzen zaienean, ikasleen gehiengoak animatzeko entzuten dutela esaten dute, beste askok erlaxatzeko eta batzuek entretenitzeko. Hemen argi ikusten da gehiengoak musika behar izan bat duelako entzuten duela, musikari bere egunerokotasunean funtzio eta balio bat emanez. Ikasleriaren gehiengoak musikarekin harreman zuzena duela dio, instrumentu bat joaz, abestuz, musika entzunez, hortaz, baieztatu daiteke haien bizitzetan eta garapenean toki garrantzitsua duela musikak.

Musika hezkuntzara ea gustura joaten ziren galderari erantzutean, ezezkoa eman zuten ikasleen %52,5k eta kontuan hartuta ikasleen egunerokotasunean musika presente egoten dela, erantzun honek baieztatzen du musika hezkuntzak ez dituela beraien nahiak asetzen, musikarekin duten harreman motibagarria eskolatik kanpoko delarik. Melillako Musika Kontserbatorio Profesionalean Lorenzok, Herrerak eta Cremadesek (2008) egin zuten ikerketa indartzen du datu honek, izan ere, ikerketa hartan ondorioztatu baitzuten hezkuntzaren dimentsio informala dela gaztetxoek gustuak definitzerako orduan eragile nagusia.

Ondorio nagusiak: (ideia nagusiak)

- Hezkuntza informala eragina hezkuntza formalarena baino handiagoa da ikasleen musika gustuetan eta ohituretan.
- Teknologia berriak dira musika ezagutze orduan agente garrantzitsuena, ziber-belaunaldi gisa ezagutzen direlarik gaurko gazteak, lagun taldearen eragina baztertu gabe, hirugarren zikloan.
- Gazteen egunerokotasunean presentzia handia du musikak, bakoitzak funtzio jakin bat ematen diolarik.
- Kantuek transmititzen dituzten baloreak desegokiak dira, ikuspegi kritiko batekin entzun ezean.
- Musikaren homogeneizazioa ematen da, zerrendan ageri diren kantu gehienak komertzialak eta Pop motakoak baitira.

Musikak badu zer esana, zer egin eta zer emana. Egunerokotasunean, gure emozio zein sentimenduak eragiteko tresna da musika. Musika artea da eta lan honetatik ondorioztatu dudaren arabera, musika negozio bilakatu dute enpresa handiek. Horretaz kontziente izanik, musika komertzialetik haratago joateaz gain, musika komertzial hori ikuspegi kritiko batetik entzun beharko genuke, hezkuntzan balore egokien transmisioa eginez. Horretarako hezkuntzan (bai formalean bai informalean) entzuten duten musikari ikuspegi kritikotik begiratzen irakatsi ahal diegu eta hezkuntza formalean musika irakastean ikasleen gustuak aintzat hartuz motibazioa handituko litzatekeela uste dugu.

7. ESKUHARTZEA EGITEKO PROPOSAMENA

Galdetegiko emaitzak, kantuen analisia eta horietatik ateratako ondorioak ikusita, argi dago hezkuntza informalak eta gaur egungo kontsumo ereduak gaztetxoek musika ohituretan eragin zuzena dutela. Modu pasiboan eta kritikotasunik gabe entzuten da musika komertzializatua eta honen aurrean hezkuntza formalak badu bere garrantzia eta egin beharra. Hezkuntza formala ez da nahikoa jendarte bat aldatzeko orduan, baina beharrezko instrumentua da horren eraldaketarako (Imbernón, 2002 in Nicolás eta Abellán, 2013).

Eskolak baloreetan oinarritutako hezkuntza sustatu behar du, pertsonaren garapen integrala bermatuko duena. Hauek, bizitzarekiko ikuspegi kritikoa izango dute eta norberaren jarrera eta pentsaerekin koherente izango dira. Baloreetan oinarritutako hezkuntza zeharkakoa izan behar da eta modu

globalean landu behar da, hau da, jakintza alor guztietan txertatu eta programaketa egiterako unean kontuan izan behar da. Balore positiboek erantzungo dien jarduerak diseinatuko dira, beraz (Vicente eta Azorín, 2013 in Magaña, 2014). Baloreetan oinarritutako hezkuntza modu intenzionalean, sistematikoan eta esplizituan egingo da (Alonso, Pereira eta Soto, 2003 in Nicolás eta Abellán, 2013). Horretarako, irakasleek jendartearen eta ikasleen interesak eta beharrak ezagutu beharko ditu eskuhartze pedagogikoa egiterako orduan.

Musika hezkuntza, aurrez esandakoa kontuan izanda, pertsonaren garapen integralerako garrantzi handiko tresna da, aurreko mendeko musika pedagogoen, Émile Jaques-Dalcroze-k eta Edgar Willems-ek, esaterako, esan bezala. Musika baloreak eta sentimenduak adierazteko hezkuntza tresna da (Alonso, Pereira eta Soto, 2003). Gainera, baloreetan oinarritutako hezkuntza bermatzeko aukera asko ematen ditu. Aurrez esan bezala, musikak balore batzuk transmititzen ditu, balore horiek musikaren bidez sentitu egiten dira eta hor dago hain zuzen musikaren magia. Musika sentitu egiten da, emozioak sortzen ditu, bihotzera iristen da, eta hori da hain zuzen musikak duen potentzialik nagusia, entzuleen emozioetara iristen dela. Horregatik da hain garrantzitsua musika entzuten denean ikuspegi kritiko bat izatea.

Galdetegietatik ateratako emaitzak kontuan izanda eta ikasleen beharrian eta interesetatik abiatuz, musika eta arte hezkuntza ikasgairako jarduerak proposamenak planteatuko dira jarraian. Hiru jarduerak proposamen egingo dira, bakoitzak helburu zehatza duen arren, jarduerak batek bestearen helburuak ere bete ditzake.

7.1. LEHENENGO JARDUERA

Swanwick-ek (1991) esan bezala, abestien letrek, aukera berriak sortzeko leihoak ireki ditzakete, horretarako, abestiek daukaten gaitasun komunikatiboa eta mezuak transmititzeko duen gaitasuna aprobetxatzea egokia da. Beraz, kantuek duten potentziala erabiltzea egokia da baloreetan hezteko (Colomo, 2013 in Magaña, 2014). Alabaina, kasu batzuetan, “Sexy señorita” edota “Danza kuduro” kantuetan, ez dira balore “positiboak” transmititzen, galdetegiko emaitzetan ikusi bezala. Beraz, kantu hauek ikasgelara ekarri eta ikuspegi kritiko batekin kantuak aztertzea aukera egokia litzateke.

Jardueraren deskribapena

Ikasle bakoitzari norberaren katurik gogokoena zein den esateko eskatuko zaio. Kantu guztien artean ikasgelako katurik gustukoenak zeintzuk diren ikusiko. Hauetatik 5 aukeratuko dira eta aste bateko saio bakoitzean kantu bat aztertuko da. Lehenengo, kantu bakoitza ikasgelan entzungo da. Ariketa pertsonala izango da, bakoitzak isilean, modu aktiboan, kantua entzutea, horretan zentratuta. Ikasleak 4 lan-taldetan banatuko dira eta talde bakoitzak kantua aztertu beharko du. Horretarako, galderak egingo dira. Azkenik, galdera horien erantzunak talde handian partekatuko dira.

Emaitzetan banatutako bost multzotako kantu bat aukeratuko da, kantuen azterketa egiteko ikuspegi kritikoarekin. Azpitaldeetan banatu aurretik, talde handian kantuaren ideia nagusia aterako da eta hortik abiatuko da lan taldeetan egingo den azterketa sakonagoa. Hauek dira galderak:

- Zein estilorekin lotuko zenukete kantua?
- Nork abesten du kantua? Gizonak ala emakumeak dira protagonistak? Kantua norena den jakin gabe asmatuko zenukete?
- Nolakoak dira gizonak kantu horretan? Eta emakumeak?
- Nori zuzenduta dago? Norentzat da kantua? Nori abesten dio?
- Zer dio kantua? Zein da bere asmoa?
- Kantu horretako pertsonekin identifikatzen zarete? Horrelakoak zarete? Horrelakoak izan nahi duzue?
- Kantuak kontatzen duen egoera horretan inoiz egon al zarete? Zer egin zenuten? Berdina egingo zenukete?
- Zein irudi, sinbolo edo metafora agertzen da kantuan? Zure ustez zer esan nahi du?
- Zeintzuk dira gehien errepikatzen diren hitz edo esamoldeak? Zergatik?

Lehenengo jardueraren fitxa didaktikoa ikusteko jo eranskinetara

7.2. BIGARREN JARDUERA

Internetaren egunerokotasuneko erabilerak, gaztetxoek edozein une eta tokitan nahi duten musika entzutea ahalbidetzen du. Honek baina, bere arriskuak ditu, izan ere, kantu hauek askotan ez baitira izaten kalitatezkoak,

musikaren homogeneizazioa emanez. Honetan irakaslearen papera da aurkitutako kantuen informazioa kanalizatzea eta baita musika mota ezberdinak daudela erakustea, hau da, musika aniztasuna agerian uztea (kultura desberdinak, emakume kantariak, hizkuntza ezberdinetakoak, instrumentuak...)

“Los adolescentes están influidos por la difusión “vertical” de una música comercial de lo que han sido durante mucho tiempo consumidores pasivos. Pero las tecnologías recientes favorecen la escucha instrumentada, la apropiación, la transformación, la composición, el intercambio y construyen una sociedad “horizontal”. (Delalande, 2005, 57 orr.).

Beraz, ikasgelan teknologia berrien erabilerak musikaren pertzepzio eta produkzio kontzientea ahalbidetzen du (Wingstedt, 2008).

Jardueraren deskribapena

Ordenagailu gelan egingo da jarduera, ordenagailu bakoitzean ikasleak binaka jarriz. Bikote bakoitzak fitxa bat izango du eta fitxa horretan interneten aurkitu beharreko kantuen irizpideak agertuko dira. Ikasleek irizpide horiek beteko dituzten kantuak bilatu beharko dituzte eta entzun. Bilaketarako gakoak diren hitzak emango zaizkie, bilaketa errazteko. Lehenengo bilatzaile arruntean topatu beharko dituzte eta honen ostean, “youtube”, “grooveshark” eta “goear” programak erabili, kantuak entzuteko. Amaieran, talde handian bakoitzeko adibideak emango dira. Ariketa hau irekia izango da, beraz, irakaslearen lana izango da saioa gidatzea.

Hauek dira irizpideak:

1. Hemen euskaraz idatzita egon arren, dakizuen beste hizkuntzak ere erabili bilaketa egiteko
2. Estilo desberdinetako kantuak bilatzen ahalegindu (rock, pop, punk, jazz, heavy, rap...)
 - Emakumez osatutako estilo desberdinetako, 2 talde eta abesti bilatu **(emakume taldeak, soilik emakumeak)**
 - Euskarazko 2 talde eta abesti bilatu, estilo ezberdinetakoak **(euskal taldeak, euskaraz abesten dutenak)**
 - 1980. hamarkadako 2 talde eta abesti bilatu **(1980-1989. urteetako taldeak)**

- Kultura desberdinetako 2 abesti bilatu (**Herrialde desberdinetako musika taldeak**)

Bigarren jardueraren fitxa didaktikoa ikusteko jo eranskinetara.

7.3. HIRUGARREN JARDUERA

Gaur egungo musika kontsumo ereduak entzule pasibo bihurtzen ditu ume eta gaztetxoak. Kontsumo eredu honek, sormenerako eta irudimenerako gaitasuna deuseztatzen du eta hauen garapena saihesten du. Ume eta gaztetxoei gaitasun hau lantzeko baliabideak eskaintzea beharrezkoa da eta musika hezkuntza horretarako, tresna egokia da. Horrez gain, sentimendua eta emozioak adierazteko eta hauek modu egokian kanalizatzeko aukera ere ematen du. (Cremades, 2012).

Jardueraren deskribapena:

“Batakada” izenez ezagutzen dena sortuko da. Horretarako, gorputz perkusioa erabiliko da, nahiz eta, musika tresnekin ere egin daitekeen. Taldea hiru azpitaldetan banatuko da eta bakoitzak erritmo bat egin beharko du. Hauek izango dira erritmoak:

Lehenengo erritmoa:

Tun tun (bi kortxea)

Takataka (lau erdikortxea)

Tun tun (bi kortxea)

Txa (beltza)

Bigarren erritmoa:

Takataka (lau erdikortxea)

Txa (beltza)

Tun tun (bi kortxea)

Txa (beltza)

Hirugarren erritmoa:

Tun tata (kortxea, bi erdikortxea)

Tun ta (bi kortxea)

Tun tata (kortxea, bi erdikortxea)

Tun ta (bi kortxea)

Lehenengo talde osoak hiru erritmoak barneratu beharko ditu eta ondoren taldea hiru azpitaldetan banatuko da. Batakada lehenengo erritmoarekin hasiko da, ondoren bigarren erritmoa sartuko da eta azkenik hirugarrena. Erritmo hauek barneratzeko 2 saio erabiliko dira eta behin hauek barneratuta jarraian datorrn ariketa zailagoa egingo da. Produkzioan zehar “break”-ak egingo dira, hau da, erritmo nagusia gelditu eta denbora laburreko erritmoa sartuko da. Hau amaitu ostean berriro ere erritmo nagusia jarraituko da. Hauek dira “break”-ak:

Lehenengo “break”- a:

1. taldea: takataka (lau semikortxea)

2. taldea: takataka (lau semikortxea)

3. taldea: takataka (lau semikortxea)

Denak: txa (beltza)

Bigarren “break”- a:

1. taldea: tun tun (bi kortxea)

2. taldea tun tun (bi kortxea)

3. taldea tun tun (bi kortxea)

Denak: txa (beltza)

Tun tun: hanka bat eta gero bestea

Takataka: bi bular kolpe eta bi izter kolpe

Txa: txaloa

Tun tata: eskuineko hanka eta txalo bi

Tun ta: ezkerreko hanka eta txalo bat

Hirugarren jardueraren fitxa didaktikoa ikusteko jo eranskinetara.

8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Lanaren azken produktua ikusita, hiru hobekuntza egingo nizkioke lanean jarraitutako prozesuari; galdetegia, kantuen analisia eta eskuhartze proposamena moldatuko nituzke.

Galdetegiari dagokionean, 64 ikasleko laginarekin atera dira emaitzak eta uste dut lagina zenbat eta zabalagoa izan, hau da, zenbat eta ikasle gehiagok erantzun galdetegia, emaitzak fidagarriagoak izango liratekeela.

Ikasleei egindako galderetan musika hezkuntzak beraientzako duen eraginaren eta honekiko duten ikuspegiaren inguruko galdera gehiago egingo nituzke, izan ere hau lagungarria izango baitzitzaidan hezkuntza informalean eraginari aurre egiterako orduan formalerako proposatutako jarduerak diseinatzerako orduan.

Honez gain, interesgarria deritzot musika hezkuntzako irakasleentzat musika hezkuntzak dituen funtzio, eginbehar eta eskaintzen dituen aukerak zeintzuk diren ezagutzeari. Beraz, irakasleentzako beste galdetegi bat diseinatzea baliagarria izango litzateke, musika hezkuntzaren garrantzian eta informalean gertatzen dena jasotzeko beharrian sinesten ote duten ezagutzeko.

Kantuen analisiari dagokionean, hauen diskurtsoaren azterketa egin dut soilik. Kantua ez da soilik idatzitakoa ordea, kantuak badu irudi bat (izan

abeslariarena, taldearena edo bideokliparena), ahotsa, doinua, erritmo bat... Hauek guztiek osatzen dute kantua eta honek transmititzen duen zentzua elementu guztien arteko sormen lanaren ondorioa da, ez soilik letrena. Beraz, kantua azterketaren emaitza aldatu egingo litzateke gainontzeko elementu hauek ere aztertuz gero. Kantua azterketa integrala izateko elementu hauek ere analisatu behar dira.

Eskuhartze proposamenari dagokionean, 3 jarduera proposatu ditut soilik eta jarduera gehiago proposatzea gustatuko zitzaidakeen. Gaur egun musika hezkuntza ikasleentzako aspergarria dela deritzot, ez dagoela gaurkotuta eta beraz, garrantzitsua iruditzen zait musika hezkuntzaren inguruko hausnarketa bat ematea eta jarduera berriak diseinatu eta proposatzea.

Honez gain, nik proposatutako 3 jarduerak paperean soilik daude proposatuta eta gustatuko litzaidake hauek praktikara eramanez ostean idaztea lan honetan. Izan ere praktikara eramanez ikusten baita jarduerak zabalik utzita ondo irtetzen diren edo zehaztapen gehiago eman behar diren.

9. BIBLIOGRAFIA

- Andreu, R. C. (2007). Familia, música y educación informal. *Música y educación: Revista trimestral de pedagogía musical*, 20(72), 35-46.
- Andreu, R. C., Torres, L. H., & Quiles, O. L. (2009). Diferencias de género en las preferencias sobre estilos musicales en estudiantes de ESO. *Investigación en educación y derechos humanos*, 207-238.
- Begines, A. C. (2012). La experiencia musical: la posibilidad de sentir. *Música y educación: Revista trimestral de pedagogía musical*, 25(92), 14-19.
- Begines, A. C. (2012). *La intervención social en la educación musical: una propuesta didáctica desde el pragmatismo y las competencias*, Universidad de Sevilla. (Doktore tesia).
- Best, H. M. (1995) Musical perception and music education. *Arts Education Policy Review*, 96 (4), 2-9.
- Calsamiglia, H. eta Tuson, A. (2008). *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*. Barcelona: Ariel.
- Cremades, R. (2008). *Conocimiento y preferencias sobre los estilos musicales en los estudiantes de Educación Secundaria Obligatoria en la Ciudad Autónoma de Melilla*, Universidad de Granada. (Doktore tesia).
- De la Ossa Martínez, M. A. (2011). Sociología de la música: Relación con la educación musical. *Música y educación: Revista trimestral de pedagogía musical*, 24(87), 18-35.
- Fernández, A. M., & Alvarez, M. R. (2009). Las competencias básicas y el currículo de educación musical en primaria. *Música y educación: Revista trimestral de pedagogía musical*, 22(77), 32-47.

- Folkestad, G. (2006). Formal and informal learning situations or practices vs formal and informal ways of learning. *British journal of music education*, 23(02), 135-145.
- García, V. E. B. (2013). La actitud del alumnado de Educación Secundaria hacia la Música Clásica en Andalucía. Un estudio analítico-descriptivo. *Revista electrónica de LEEME*, 31, 1-32.
- Gil, D. G., & Vallejo, P. R. (2013). Estereotipos femeninos en creaciones narrativas musicales. *Música y educación: Revista trimestral de pedagogía musical*, 26(96), 92-107.
- Gómez, E. T. (2010). Canciones y discusión de dilemas en el desarrollo de valores. Una experiencia de intervención en Escuelas Primarias de la República Dominicana. *Revista electrónica de LEEME*, 25.
- Herrera, L., Cremades, R., & Lorenzo, O. (2010). Preferencias musicales de los estudiantes de Educación Secundaria Obligatoria: influencia de la educación formal e informal. *Cultura y Educación*, 22(1), 37-51.
- Lomas, C. (1999). Género y escuela. ¿Iguales o diferentes?: género, diferencia sexual, lenguaje y educación, 19-31.
- López González, E. Nuevos métodos de investigación en educación infantil, ideas previas. Valencia.
- Magaña, E. C. (2014). Las letras de las canciones: propuesta para educar en valores. *Música y educación: Revista trimestral de pedagogía musical*, 27(100), 66-73.
- Nicolás, G. V., & Abellán, C. M. A. (2013). Música y valores: una relación educativa ineludible. *Música y educación: Revista trimestral de pedagogía musical*, 26(93), 16-25.
- Quiles, O. L. (2002). *Educación musical no formal a través de la prensa de divulgación general en España*, Universidad Nacional de Educación a Distancia. (Doktore tesia).
- Robles Rodríguez, J., Giménez Fuentes-Guerra, F. J., Abad Robles, M. T., & Robles Rodríguez, A. (2015). El desarrollo curricular del deporte según la percepción del profesorado desde una perspectiva cualitativa. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, 27, 98-104.
- Sancha Navarro, J. M. (2011). Intereses musicales de alumnos de Secundaria en Sevilla. *Música y educación: Revista trimestral de pedagogía musical*, 24(88), 44-59.
- Swanwick, K. (1991). *Música, pensamiento y educación*. Madrid: Morata.
- Torres, L. H., & Andreu, R. C. (2011). Gustos musicales de los estudiantes de conservatorio. *Música y educación: Revista trimestral de pedagogía musical*, 24(85), 64-76.
- Van Dijk, T. (2008). *El discurso como interacción social*. Barcelona: Gedisa.
- Eusko Jaurlaritzak. *Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu curricularrak Euskal Autonomia Erkidegoan*. 2015eko maiatzaren 6an berreskuratuta:
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-5473/eu/contenidos/informacion/dia2/eu_2023/adjuntos/decretos_curriculares/dc_educ_basic_e.pdf

10. ERANSKINAK

10.1. GALDETEGIA

1. Zein musika entzuten duzu?
Taldea edo bakarlaria:
Musika mota:
2. Zeintzuk dira zure kanturik gogokoenak? (aukeratu gehien gustatzen zaizkizun 5 kantuak edo gehien entzuten dituzun 5 kantuak)
3. Norekin entzuten duzu? (bakarrik, lagunekin, gurasoekin, anai-
arrebekin...)
4. Noiz entzuten duzu? (arratsaldetan, goizetan, asteburuetan, egunero,
inoiz ez...)
5. Zenbat aldiz entzuten duzu musika egunean? (askotan, gutxitan, ...)
6. Nondik lortzen duzu musika? (CDetatik, internetetik,...)
7. Zertarako entzuten duzu musika? Zer ematen dizu musikak?
8. Zein da musikarekin duzun harremana? Inoiz musika tresnarik jo izan
duzu? Edo kantatzea gustatzen zaizu?
9. Nola entzuten duzu? (mp4an, ordenagailuan, musika aparatuan...) Non
entzuten duzu? (etxean, kaletik zoazenean, tabernetan, kontzertuetan...)
10. Nola ezagutzen dituzu kantu berriak? (lagunen bidez, etzekoen bidez,
telebista bidez, irrati bidez, sare sozialen bidez, ...)
11. Gustura joaten zara musikako saiora? Zer aldatuko zenuke?

10.2. FITXA DIDAKTIKOAK

LEHENENGO JARDUERAREN FITXA DIDAKTIKOA

Gaitasunak

- Ikasten ikasteko gaitasuna: ikasten hasteko trebetasunak martxan jartzen direlako, geroz eta eraginkortasun eta autonomia gehiagorekin ikasteko gai izateko.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: ahozko nahiz idatzizko hizkuntzaren erabilpena sustatzen delako, errealitatea interpretatu eta ulertzeko.
- Giza eta arte kulturarako gaitasuna: artea balioesteko, haien adierazpenak norberarengana ekartzeko trebetasunak eta jarrerak izan behar dira, eta, horrez gain, pentsatzeko, hautemateko, komunikatzeko eta sentitzeko trebetasunak eta sen estetikoak izan behar da, haiek ulertu eta balioesteko eta haiekin gozatzeko eta hunkituta sentitzeko.

Giza eta arte-kulturarako gaitasunak berekin dakar kultura- eta arte adierazpenak ezagutzeko, ulertzeko, balioesteko eta ikuspegi kritikoz baloratzeko gaitasuna. Ikasleak gozatzeko eta bere burua aberasteko erabili behar ditu adierazpen horiek, eta herrien ondare-elementutzat jo.

- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: elkarren artean lotura duten balio eta jarrera pertsonalez jabetzeko eta horiek aplikatzeko.

Edukiak

- Kontzeptuak
 - Kantuen letrak ezagutu
 - Musika estiloak gogora ekarri
- Prozedurak
 - Kantua interpretatu
 - Entzuten den kantua bere musika estiloarekin lotu
 - Kantua norbere errealitatearekin lotu
- Jarrerak

- Ikaskideen ekarpenak kontuan hartu
- Kantuaren letraren inguruan jakin-mina erakutsi
- Kantuaren entzute aktiboa izan
- Ikuspegi kritikoa izan

Materialak

Arbela, ordenagailua, bozgorailuak, galdetegia, boligrafoa.

Espazioa

Musika gela.

Denbora

Ordu beteko bost saio

Talde mota

Talde handia (22 ikasle) eta lan talde txikiak (4koak).

Ebaluazioa

Gaitasun zenbakia	Ebaluazio irizpideak	Ebaluazio tresnak
1	Ikasteko interesa jarri du	Irakaslearen behaketa (Irakaslearen agendan, beharko balitz)
2	Kantua ulertzeko, arrazoitzeko eta azaltzeko gai da	Irakaslearen behaketa (Irakaslearen agendan, beharko balitz)
3	Ikuspegi kritikoz kantuak aztertzeko gai da	Irakaslearen behaketa (Irakaslearen agendan, beharko balitz)
4	Gogotsu eta adi aritu da lanean	Irakaslearen behaketa (Irakaslearen agendan, beharko balitz)

BIGARREN JARDUERAREN FITXA DIDAKTIKOA

Gaitasunak

- Ikasten ikasteko gaitasuna: ikasten hasteko trebetasunak martxan jartzen direlako, geroz eta eraginkortasun eta autonomia gehiagorekin ikasteko gai izateko.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: ahozko nahiz idatzizko hizkuntzaren erabilpena sustatzen delako, errealitatea interpretatu eta ulertzeko.
- Giza eta arte kulturarako gaitasuna: artea balioesteko, haien adierazpenak norberarengana ekartzeko trebetasunak eta jarrerak izan behar dira, eta, horrez gain, pentsatzeko, hautemateko, komunikatzeko eta sentitzeko trebetasunak eta sen estetikoak izan behar da, haiek ulertu eta balioesteko eta haiekin gozatzeko eta hunkituta sentitzeko.

Giza eta arte-kulturarako gaitasunak berekin dakar kultura- eta arte adierazpenak ezagutzeko, ulertzeko, balioesteko eta ikuspegi kritikoz baloratzeko gaitasuna. Ikasleak gozatzeko eta bere burua aberasteko erabili behar ditu adierazpen horiek, eta herrien ondare-elementutzat jo.

- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna: informazioa bilatzean, lortzean, prozesatzean, komunikatzean eta informazio hori jakintza bilakatzean datza gaitasun hau. Gaitasun honek eskatutako trebetasunen artean daude, besteak beste, informazioa eskuratzekoa, hura tratatu eta informazio-euskarrietara transmititzekoa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak informatzeko, ikasteko eta komunikatzeko erabiltzekoa.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: elkarren artean lotura duten balio eta jarrera pertsonalez jabetzeko eta horiek aplikatzeko.

Edukiak

- Kontzeptuak
 - Kantu mota desberdinak ezagutu
 - Baliabide desberdinak ezagutu
- Prozedurak
 - Programak desberdinak erabili
 - Ezaugarriak kantuekin lotu
- Jarrerak
 - Kantuaren entzute aktiboa izan
 - Kantu desberdinak ezagutzeko interesa erakutsi
 - Kantu eta artistekiko errespetua izan
 - Musika aniztasunarekiko jarrera irekia izan

Materialak

Ordenagailuak, proiektorea, ezaugarri eta baliabideen fitxa eta bozgorailua.

Espazioa

Ordenagailu gela

Denbora

Ordu bete

Talde mota

Talde handia (22 ikasle), binaka

Ebaluazioa

Gaitasun zenbakia	Ebaluazio irizpideak	Ebaluazio tresnak
1	Ikasteko interesa jarri du	Irakaslearen behaketa (Irakaslearen agendan, beharko balitz)
2	Ulertzeko, arrazoitzeko eta azaltzeko gai da	Irakaslearen behaketa (Irakaslearen agendan, beharko balitz)
3	Kantuak eta ezaugarriak identifikatzeko gai da	Irakaslearen behaketa (Irakaslearen agendan, beharko balitz)
4	Baliabideak modu egokian erabiltzeko gai da	Irakaslearen behaketa (Irakaslearen agendan, beharko balitz)
5	Gogotsu eta adi aritu da lanean	Irakaslearen behaketa (Irakaslearen agendan, beharko balitz)

HIRUGARREN JARDUERAREN FITXA DIDAKTIKOA

Gaitasunak

- Ikasten ikasteko gaitasuna: ikasten hasteko trebetasunak martxan jartzen direlako, geroz eta eraginkortasun eta autonomia gehiagorekin ikasteko gai izateko.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: ahozko nahiz idatzizko hizkuntzaren erabilpena sustatzen delako, errealitatea interpretatu eta ulertzeko.
